

Kanpineko lagunak

–Begira, Monika! Toldo txuri-gorriaren azpian dagoen neska Estibaliz da. Asko gustatzen zaio kartetan aritzea. Berarekin jokatzen ari den emakumea Lurdes da, Estiren ama. Lurdes sukaldari trebea da. Berak antolatzen ditu barbakoa guztiak. Seguru aste honetan baten bat antolatuko duela. Ikusiko duzu!

–Zer ondo! Niri barbakoak izugarri gustatzen zaizkit!

–Furgoneta gorriaren ondoan irakurtzen ari den mutila Aziz da. Komikiak irakurtzea gustatzen zaio. Eta bere ondoan dagoen mutila Jon da, haren mutil-laguna. Beti egoten da eguzkitan etzanda, horregatik dago beltz-beltza.

–Bai, neska! A zer kolore ederra duen!

–Arrantzan ari diren neskak Izeia eta Naiara dira. Izeia mototsaduna da eta Naiara ile motza duena. Izeiak arrantzarako pazientzia handia dauka, baina Naiara segituan aspertzen da arrantzan.

–Ez naiz harritzen, niri ere aspergarri samarra iruditzen zait, baina, tira, erreka bertan egonda, agian probatuko dut egun hauetan!

–Motxilarekin menditik datorren neska Ibone da. Loreak dakartza karabana apaintzeko. Goizero joaten da mendi-buelta egitera.

–Ibilbide politak egongo dira inguru honetan!

–Bai, ikusgarriak! Begira, badator Rocio! Kotxe gorrian kanpinera iristen ari den emakumea da Rocio. Urtero etortzen da Madriletik hona alabekin. Asko eskertzen du hemengo eguraldi freskoa.

–Ui, zenbat lagun dituzun! Ez dakit gogoratuko naizen nor den nor!

–Lasai, gero elkartuko gara denok tabernan, eta hobeto ezagutuko dituzu!